JARDUEREN EGITARAUA

26→27

# Arabako Errioxako Kuadrilla



Arabako emakumeon berdintasunerako eta jabekuntzarako eskola

laia.araba.eus

Laia

Arabako Errioxako Kuadrilla
Cuadrilla de Rioja Alavesa

araba álava
foru aldundia diputación foral

## LAIA Arabako Errioxako

### INFORMAZIOA, KONTAKTUA ETA IZEN-EMATEA

Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

945 600 252 | 620 577 565

criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus

Gasteizko errepidea, 2. 01300 Laguardia, Araba




**Izena eman behar den jarduueretarako epea:**
ikastaroa hasi baino hiru egun lehenagora arte

**Ludoteka eta garraio zerbitzua:**
jarduera hasi baino hiru egun lehenagora arte

GURE BULETIN DIGITALEAN IZENA EMAN LAIA.ARABA.EUS BIDEZ

***#LAIAArabakoErrioxa***

Edukien prestaketa: Arabako Errioxako Kuadrillako Berdintasun Zerbitzua

LAIAren Idazkaritza Teknikoa: Red Kuorum S.L — www.redkuorum.eus

Diseinua eta maketazioa: Labox — www.labox.es

Inprimatzailea: Arabako Foru Aldundia

L.G.: LG G 492-2026

@LaiaAraba

laia.araba.eus

# Aurkibidea


2 LAIA Arabako Errioxako
3 Aurkibidea
5 Bueltan gara Arabako Errioxan!
7 LGTBIQ+fobiaren aurkako sarea Araban
9 Arabako Landa Eremuko Emakumeen Sarearen XXVII. Topaketa
11 Arabako Errioxako Berdintasun Foroa
12 Arabako Errioxako irakurketa-klub feminista euskaraz
13 Arabako Errioxako irakurketa-klub feminista gaztelaniaz
14 Leire Milikuarekin solasaldi aurkezpena
15 Liburuaren aurkezpen solasaldia
16 IRAKURRI GOXO - Haurrentzako irakurketa kluba
17 Istorioen laborategia
18 Maskulinitate Berriak
19 Hazkuntza lasaia: gelditzeko, arnasteko eta zeure burua zaintzeko gunea
20 FEMprende Arabako Errioxa
21 Arabako Errioxako antzerki talde feminista
22 Tailer praktikoa: jendaurrean hobeto hitz egiteko teknikak
24 "Respirando Juntas 2.0"
25 Tailerra: gorputz ziklikoa, bizitako gorputza
26 Emakumeen osasunerako tailerrak: «Ciclo vivo»
27 Cuídame & Cuídome
28 Mugi Zaitez!
29 Komunikazio inklusiboko prestakuntza - Sakontzea
30 Eskultura tailerra, artearen historiako emakume artista erreferenteen obraren bidez
31 Collage tailerra: Mujeres Libres
32 Batukada feministako tailerra: «Erresistentzia erritmoak»
33 Emakumeentzako brikolaje tailerra
34 Jakinduria loturak ehuntzen
35 Emakume-izena(k)
36 Biografia sexuatuko tailerrak
37 Oroitzapen-albuma sortzea
38 Autodefentsa feministako tailerrak
39 25erako totebag diseinua
41 El Orden Divino
42 Zineforuma: Têtes Brûlées (Maja-Ajmia Yde Zellama)
43 Zineforuma: Hanami
44 SORDA
45 «La bici de Lola» film laburra
46 AMAZONA
47 Nola idazten da emakumeen historia?
49 «Indarkeria sinbolikoa, patriarkatua kamuflatzen denean»
50 Zaintzaren arkitekturak
51 Pantailak, sareak eta adingabeak: laguntzeko gakoak
52 Autoestimua eta mugak: ezetz esan, baietz esan
53 Genero indarkeria landa eremuko emakume nagusienganako: ezkutukoa eta berezia
54 Pisua duen edertasuna
55 Haurtzaroko sexu indarkerien komunikazioa eta prebentzioa
56 Ainarak edo Enarak
57 ONGI ETORRI
58 Gela Morea
60 Emakumeen memoriak ere Araba eraikitzen du

# Arabako Errioxako
## *Kuadrilla*






## Bueltan gara Arabako Errioxan!

LAIA, Arabako emakumeen berdintasunerako eta ahalduntzerako Lurralde Sarea, indarrez itzuli da 2026-2027 ikasturte honetan, eta gozatzeko, ikasteko eta gizarte bidezkoago, berdinzaleago, anitzago eta kulturartekoago baterantz elkarrekin aurrera egiten jarraitzeko pentsatutako proposamenez betetako programazioarekin dator.

LAIA proiektu kolektiboa da, eta bertan indarrak batzen ditugu: Aldundiak, Kuadrillek, udalek, elkarteek, mugimendu feministak eta indarkeriarik gabeko lurralde berdinzaleago batekin konprometitutako guztiek.

Hurrengo orrialdeetan adin eta gustu guztietarako pentsatutako jardueren eskaintza zabal eta anitza aurkituko duzu: tailerrak, topaketak, antzerkia, hitzaldiak, hausnarketarako eta sorkuntzarako guneak...

Ikasturte honetan berritasun ugari ditugu: haur eta nerabeentzako irakurketa klubak, Arabako Errioxa FEMprende, hazkuntza lasaia, antzerki feminista, batukada feministako ikastaroa... eskualdeko berdintasuna eta emakumeen ahalduntzea indartzea helburu duten prozesuak.

Parte hartzera, batzera, partekatzera eta Arabako Errioxako beste bizilagun batzuekin sareak ehuntzera animatzen zaitugu.

Jarduera guztiak doakoak dira.

**Berdintasuna guztion artean eraikitzen dugulako, eta bidea hobea delako elkarrekin egiten badugu.**


ERASO MATXISTARIK
GABEKO JAI ASKEAK
BELDUR BARIK
ASKEAK
POR UNAS FIESTAS LIBRES
DE AGRESIONES MACHISTAS
araba álava
foru aldundia diputación foral
Laia
Arabako Mendialdeko Kuadrilla
Arabako Errioxa
Rioja Alavesa
AIARALDEA KUADRILLA

## LGTBIQ+fobiaren aurkako sarea Araban

Lumagorri elkarteak Araban duen presentzia sendotu du, sexu-orientazioagatiko, genero identitateagatiko edo genero adierazpenagatiko diskriminazioa eta indarkeria errotik kentzeko helburuarekin, LGTBIQ+ pertsonen ahalduntze feminista sustatuz. Ikusguneen bidez —jaietako eta aisialdiko jardueretako informazio-guneak—, laguntza, entzutea eta baliabideak eskaini zaizkie LGTBIQ+fobiazko erasoen biktimei, errealitate hori lurraldean ikusarazten lagunduz. Aurrerapenak gorabehera, erronkek bere horretan diraute: diskriminazioa, ikusezintasuna edo gorroto delituak. Lumagorrik Arabako herrietan erreferentziazko pertsonen sarea sortzearen alde egiten du, gune seguruak eta indarkeriarik gabeak sustatuz. Erakundeen eta komunitatearen babesa funtsezkoa izan da.

**Arabako Foru Aldundiaren, jai batzordeen, udalen, administrazio batzarren, kolektiboen eta berdintasun teknikarien konpromisoa funtsezkoa izan da lan hau garatzeko.**

Egin dezagun Araba LGTBIQ+fobiarik gabeko lurraldea.





Arabako Baserritar Inguruko **Emakumeen Sarea**

**Red de Mujeres** del Medio Rural de Álava

## Arabako Landa Eremuko Emakumeen Sarearen XXVII. Topaketa

Arabako Landa Eremuko Emakumeen Sarearen XXVII. Topaketa ikasitakoa praktikan jartzeko, landa eremuko emakumeen papera ikusarazteko eta kolektiboki eraikitzen jarraitzeko gunea izango da. Aurreko topaketaren jarraipen gisa —landa eremuko emakumeen ekintzailetzan zentratua—, aurten emakumeen lidergoan sakonduko dugu, ez soilik ekonomia eta enpresa arloetan, baita komunitate lider paperean ere.

Emakume askok beren herrietan egiten duten lana —askotan isilean— aitortu eta ikusaraztea da helburua: eguneroko bizitza sostengatzea, ekimenak bultzatzea eta gizarte kohesioa sortzea; eta belaunaldien arteko zubiak eraikitzea, adin desberdinetako emakumeak herrietan bizitza mantentzeko eta beren komunitateak zaintzeko helburu komunak batuta.

| | |
|---|---|
| Data eta ordutegia | **Urriak 31** |
| Tokia | Burgelu |
| Norentzat | Landa eremuko emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Arabako Landa eremuko Emakumeen Sarea<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | **red@mujeresruralesalavesas.org**<br>**www.laia.araba.eus** webgunearen bidez, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |


ARABAKO ERRIOXAKO
BERDINTASUN
FOROA-FORO DE
IGUALDAD
DE RIOJA ALAVESA

## Arabako Errioxako Berdintasun Foroa

Arabako Errioxako Berdintasun Foroa gune irekia, kolaboratiboa eta feminista da, gure eskualdean aktiboki lan egiten duena emakumeen eskubideak defendatzeko eta genero berdintasuna sustatzeko. Oso emakume anitzen topagunea da: herri, adin eta ibilbide desberdinetakoak, beren ingurunea eraldatzeko gogoak batuta. Berdintasunarekin konprometitutako banakako eta kolektibo guztiei irekita dago. Modu ibiltarian biltzen gara eskualdeko udalerri desberdinetan.

**Zure zain gaude!**

Kontsultatu hurrengo hitzorduak gure Instagramen:
@berdintasuna_igualdad

| | |
|---|---|
| Ikasturteko lehen bilera | **Irailak 21**<br>18:00 – 20:00, A25aren harira eskualdeko topaketa antolatzeko |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus |




## Arabako Errioxako irakurketa-klub feminista euskaraz

**Arabako Errioxan euskaraz irakurtzeko, feminismoari buruz hausnartzeko, iritziak partekatzeko eta sozializatzeko guneen bila bazabiltza, gune hau zuretzat da.** Euskarazko literatura onaz partekatzeko eta gozatzeko bilduko gara, eta, aldi berean, begirada zabalduko dugu feminismoaren historia ezagutzeko.

Aurten gonbidatu aparta dugu hasteko: **June Fernández**, bere "Aingeruak eta neskameak" liburuaz hitz egiteko lagunduko diguna.

**Animatu parte hartzera!**

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Ainhoa Aldazabal Gallastegui**, Skolastikakoa, euskal filologoa, literatura feministan aditua |
| Data eta ordutegia | **Urriak 1, 2026**<br>Hurrengo saioak:<br>**Azaroak 5, 2026; Otsailak 25 eta Maiatzak 27, 2027**<br>Osteguna, 17:30 – 20:00 |
| Tokia | Kuadrillaren eraikina, Laguardia |
| Norentzat | Arabako Errioxako emakumeak |
| Hizkuntza | Euskara |
| Antolatzailea - laguntzailea | Arabako Errioxako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |



Arabako Errioxa

# Arabako Errioxako irakurketa-klub feminista gaztelaniaz

Irakurketa Klub Feminista adin guztietako emakumeentzako gunea da, irakurtzeko, partekatzeko eta elkarrekin hazteko. Feminismoari buruz hitz egiten dugu hainbat liburuen bidez, gure bizipenak kontatzen ditugu eta elkarri laguntzen diogu. **Animatzen zara?**

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Christina Christina Werckmeister**, ibilbide luzea du Araban irakurketa klubak dinamizatzen. Urteak daramatza taldeak koordinatzen Gasteizen, Añanan eta Lautadan, eta gaur egun baita Arabako Errioxako Irakurketa Klub Feminista ere. |
| Data eta ordutegia | **2026ko urritik 2027ko maiatzera**<br>**Lehen topaketa: urriak 22, 2026**<br>Aurreikusitako hurrengo topaketak:<br>**Azaroak 19 eta abenduak 10, 2026**<br>**Hileko hirugarren osteguna, 2027**<br>Osteguna, 18:00 – 20:00 |
| Tokia | Topaketa ibiltariak. Tokiak parte-hartzaileekin zehaztuko dira |
| Norentzat | Arabako Errioxako emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Herri anfitrioietako udalak<br>Arabako Errioxako Kuadrilla<br>Berdintasun Foroa<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |




## Leire Milikuarekin solasaldi aurkezpena

“Sobre la tierra, bajo la sombra”

Egilearen hitzetan, ‘Sobre la tierra, bajo la sombra’ liburua hiru gauza da: leiho bat gure lurraldeei begiratzeko, gure inguruko lurra nolakoa den eta nortzuk bizi diren ikusteko.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Leire Milikua Larramendi,** arkitektoa eta ikertzailea. Agroekologian eta Genero Berdintasunean unibertsitateko espezialista. Bere ikerketa eta lan ildo nagusiak dira agroekologia, nekazaritzako elikagai sistemak, landa eremua, herritarren parte-hartzea eta genero berdintasuna |
| Data eta ordutegia | **Irailak 17, 2026**<br>Osteguna, 18:00 – 20:00 |
| Tokia | Cándido Besa Upategia, Eskuernaga |
| Norentzat | Herritarrak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | *Arabako Argazkilaritza Elkartea*<br>*Cándido Besa Upategia*<br>*Arabako Errioxako Kuadrilla*<br>*Arabako Foru Aldundia* |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |




## Liburuaren aurkezpen solasaldia

“Aingeruak eta neskameak”

Euskarazko Irakurketa Kluba topaketa zoragarri honekin irekiko dugu, June Fernándezekin eta bere “Aingeruak eta neskameak” liburuarekin.

Liburu hau June Fernándezen saiakera bat da, haurdunaldi subrogatuaren inguruko dilema etiko, politiko eta feministak aztertzen dituena. Jarrera itxietatik urrun, egileak ahots eta hausnarketa anitzak biltzen ditu, eskubideei, zaintzei, amatasunei eta justizia sozialari buruzko eztabaida konplexu bat irekitzeko. Ziurtasunak zalantzan jartzera eta gaurkotasun handiko gai batean sakontzera gonbidatzen duen irakurketa.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **June Fernández** idazle eta ekintzaile feminista euskalduna da. Generoan, sexualitatean eta giza eskubideetan espezializatua, Pikara Magazine aldizkari feministaren sortzailetariko bat da, eta feminismoei, aniztasunari eta indarkeria matxistei buruzko hainbat liburu eta erreportajeren egilea |
| Data eta ordutegia | **Urriak 1, 2026**<br>Osteguna, 17:30 – 19:30 |
| Tokia | Arabako Errioxako Kuadrillaren egoitza, Laguardia |
| Norentzat | Emakumeak |
| Hizkuntza | Euskara |
| Antolatzailea - laguntzailea | Arabako Errioxako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |




## IRAKURRI GOXO - Haurrentzako irakurketa kluba

### Liburuen bidez hazteko, amets egiteko eta gozatzeko gunea

Badira barre eragiten diguten istorioak, pentsarazten digutenak, eta liburua itxi eta askoz geroago ere gurekin geratzen direnak. **Irakurri Goxo** gune abegikorra da, non neska-mutilek eta familiek partekatutako irakurketaren magiaz gozatu dezaketen.

Zure zain gaude irakurtzeko, irudikatzeko eta konpainian gozatzeko!

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Ainhoa Aldazabal Gallastegui**, Skolastikakoa, euskal filologoa, literatura feministan aditua |
| Data eta ordutegia | **Lehen saioa: urriak 2, 2026**<br>Ekarri zure libururik gogokoena!<br>Hurrengo saioak:<br>**Azaroak 6, 2026**<br>**Urtarrilak 29, otsailak 26 eta martxoak 12, 2027**<br>Ostirala: 18:00 – 19:30 |
| Tokia | Oyón-Oiongo liburutegia |
| Norentzat | Lehen Hezkuntzako 1. mailatik aurrerako neska-mutilak |
| Hizkuntza | Euskara |
| Antolatzailea - laguntzailea | Oyón-Oiongo Udala<br>Oyón-Oiongo Liburutegia<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |




## Istorioen laborategia

Haurrentzako irakurketa eta idazketa kluba

Irakurtzea gustatzen zaizu? Pertsonaiak asmatzea, abenturak irudikatzea edo mundu berriak sortzea? **Istorioen laborategia** hitzekin, istorioekin eta irudimenarekin jolasteko gunea da.

Ipuinen, liburuen, jolasen eta idazketa proposamen sortzaileen bidez, irakurri, idatzi, marraztu, ideiak partekatu eta gure istorioei bizia emango diegu. Neska, mutil eta nerabe bakoitzak askatasunez bere burua adierazi, bere sormena deskubritu eta bere ahotsa aurkitu ahal izango duen tokia.

Irakurtzeko, sortzeko, partekatzeko eta istorioez gozatzeko gunea.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Nagore Perez**, Suge Aholkularitza feminista |
| Data eta ordutegia | **Lehen saioa: irailak 28, 2026**<br>Ekarri zure libururik gogokoena!<br>Hurrengo saioak:<br>**Urriak 26, azaroak 23, abenduak 21 eta urtarrilak 18**<br>Astelehena: 17:00 – 18:30 |
| Tokia | Liburutegia, Bastida |
| Norentzat | Lehen Hezkuntzako 1. mailatik aurrerako neska-mutilak |
| Hizkuntza | Euskara |
| Antolatzailea - laguntzailea | Arabako Errioxako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia<br>Bastidako Udala |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |

Oyón-Oion



## Maskulinitate Berriak

### Arabako Errioxako gizonen taldea

Elkartzeko eta kolektiboan lan egiteko gunea, maskulinitate patriarkalaren pribilegioez eta kostuez; elkarrekin, epairik gabe, toki seguru bat eraikiz partekatzeko, entzuteko, ikasteko eta konektatzeko, genero rolak zalantzan jartzeko eta berdintasuna sortzen duten maskulinitateak eta gizarte feministagoa eraikitzeko gure ardura hartzeko.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Oihan Martirena** (Aise Kooperatiba) |
| Data eta ordutegia | **2026ko urritik 2027ko ekainera**<br>Asteartea, 18:30 – 20:30<br>(datak parte-hartzaileen artean zehaztuko dira)<br>Bi orduko saioak |
| Tokia | Bazterra aretoa (Oyón-Oiongo Gaztelekua) |
| Norentzat | Gizonak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Oyón-Oiongo Udala<br>Arabako Errioxako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | Oihan Martirenaren bidez<br>722 210 168 oihan@aise.eus<br><br>945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |




## Hazkuntza lasaia: gelditzeko, arnasteko eta zeure burua zaintzeko gunea

Subjektibitatea eta balioen aldaketa

Amatasuna esperientzia eraldatzailea da, emozioz, ikaskuntzaz eta erronkaz betea. **Hazkuntza lasaia** ama diren edo izateko bidean dauden emakumeentzako topagune gisa jaio da, bizipenak partekatzeko, lagunduta sentitzeko eta Arabako Errioxako beste emakume batzuekin sarea eraikitzeko, ikuspegi feminista batetik.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Amaia Ugarte eta Carmen Almansa** emakume taldeen dinamizazioan esperientzia dutenak, yoga irakasleak eta doulak |
| Data eta ordutegia | **2026ko urritik 2027ko maiatzera**<br>**Lehen topaketa: urriak 29**<br>Hileko laugarren osteguna, 17:00 – 19:00 |
| Tokia | Topaketa ibiltariak. Tokiak parte-hartzaileekin zehaztuko dira |
| Norentzat | Emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Herri anfitrioietako udalak<br>Arabako Errioxako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |



## FEMprende Arabako Errioxa

Ekintzailea, autonomoa edo enpresaria bazara, edo martxan jarri nahiko zenukeen ideiaren bat baduzu, FEMprende Arabako Errioxa zure gunea da. Esperientziak partekatzeko, beste emakume batzuk ezagutzeko, ideiak trukatzeko, tarte atsegina pasatzeko, elkarrekin ikasteko eta lankidetza aukera berriak sortzeko topagunea.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Mentxu Ramilo Araujo**, 2025eko Berdintasunerako Emakunde Saria; urteak daramatza landa eremuko emakume ekintzaileak laguntzen, topaketarako, ikaskuntza partekaturako eta elkarren laguntzarako guneak sortzeko. |
| Data eta ordutegia | **2026ko urritik 2027ko maiatzera**<br>**Hurrengo topaketak:**<br>- Asteazkena, irailak 30, 12:00etan.<br>Giovana Arruda Campos, FeMprende programako partaideak, «Kontu Argiak» tresna aurkeztuko du.<br>- Osteguna, azaroak 5, 18:00etatik 20:00etara. FEMprenderen hirugarren topaketa!<br>- Ostirala, abenduak 11, 11:00etan. Bisita esperientzia edo proiektu inspiratzaile batera. |
| Tokia | Topaketa ibiltariak. Tokiak parte-hartzaileekin zehaztuko dira |
| Norentzat | Emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Herri anfitrioietako udalak<br>Arabako Errioxako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |




## Arabako Errioxako antzerki talde feminista

Kultura birdefinitzen

Ikasturtean zehar, gorputz adierazpena, sormena eta eszena proposamen propio baten eraikuntza kolektiboa landuko ditugu. Erronka partekatu gisa, aurten taldeak azaroaren 25eko Eskualde Topaketan parte hartuko du, genealogia feministaren denbora lerroari buruzko sorkuntza kolektibo bat taularatuz. Ez da aurretiko esperientziarik behar; parte hartzeko eta prozesuaz gozatzeko gogoa baino ez.

**Plaza mugatuak!**

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Belén Nevado**, aktorea, eszena zuzendaria, musikaria, pailazoa, formatzailea... eta, batez ere, feminismoarekin eta emakumeen ahalduntzearekin artearen bidez konprometitutako artista |
| Data eta ordutegia | **Urriak 19 eta 26; azaroak 2, 9, 16, 23 eta 28, 2026**<br>Astelehena, 18:00 – 20:00 |
| Tokia | Lehen solairua, Lezako udaletxea |
| Norentzat | Emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Lezako Udala<br>Arabako Errioxako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |




## Tailer praktikoa: jendaurrean hobeto hitz egiteko teknikak

### Komunikazioa eta gizarte trebetasunak

Zeure burua adieraztean konfiantza irabazi nahiko zenuke? Ez zarela ondo azaltzen sentitzen duzu? Tailer honetan horixe bera landuko dugu: konfiantza irabaztea eta seguruago sentitzea geure burua adieraztean. Pausoz pauso joango gara, beldurrak, trikimailuak eta tresnak partekatuz, lasaitasunez eta argitasunez hobeto komunikatzen lagunduko digutenak. Gune zaindua izango da, emakumeen artekoa, non praktikatu, oker egin, barre egin eta ahotsa askatu ahal izango duzun. Hitz egitean indartsuago sentitu nahi baduzu, hau da zure tokia. Animatu parte hartzera!

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Idoia Eizmendi**, Kazetaritzan lizentziaduna eta UPV/ EHUko Emakumeen eta Gizonen Berdintasuneko masterduna |
| Data eta ordutegia | **Irailak 18 eta 25, eta urriak 2 eta 9, 2026**<br>Asteazkena, 17:30 – 20:00 |
| Tokia | Erabilera anitzeko gunea, Lurra aretoa, Samaniego |
| Norentzat | Emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Samaniegoko Udala<br>Arabako Errioxako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |

## Emakumeen osasuna ikuspegi feminista batetik

Emakumeen osasuna historikoki ikusezin bihurtu eta medikalizatu izan da begirada androzentriko batetik. Ibilbide honek guneak proposatzen ditu gure gorputza ulertzeko, esperientziak partekatzeko eta autozaintza kolektiborako tresnak sortzeko, ikuspegi feminista batetik.




## “Respirando Juntas 2.0”

Gorputza, arnasketa, zoru pelbikoa eta ongizate emozionala Respirando Juntas 2.0 gure gorputza hobeto ezagutzeko, zoru pelbikoa zaintzeko eta ongizatea hobetzeko gunea da, arnasketaren, mugimendu kontzientearen eta beste tresna praktiko batzuen bidez.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Ananda Abaigar, Villa**. Esperientzia zabala du emakume taldeen dinamizazioan Laia Eskolaren esparruan, ahalduntze, ongizate eta autoezagutza prozesuak landuz |
| Data eta ordutegia | **Irailak 28; urriak 5, 19 eta 26; azaroak 2, 9, 16 eta 30, 2026**<br>Astelehena, 17:30 – 19:00 |
| Tokia | Bazterra aretoa, Oyón-Oion |
| Norentzat | Emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Oyón-Oiongo Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |




## Tailerra: gorputz ziklikoa, bizitako gorputza

Nola bizi dugu gure gorputza? Zer harreman dugu berarekin? Zer mezu jaso ditugu bizitzan zehar? Tailer honek gune hurbil eta parte-hartzailea proposatzen du, gorputzari buruz norberaren esperientziatik hausnartzeko, bizipenak, zalantzak eta ikaskuntzak partekatuz. Geure buruari entzuteko, gure beharrekin berriro konektatzeko eta geure buruarekiko begirada atseginago eta kontzienteago bat eraikitzeko aukera, ikuspegi feminista batetik.

**Hurbildu!**

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Maider Garcia de Vicula**, sexologo eta psikologo feminista. Emaize Elkartea |
| Data eta ordutegia | **Irailak 29, 2026**<br>Asteartea, 17:30 – 20:30 |
| Tokia | La Casona, Lapuebla de Labarca |
| Norentzat | Emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Lapuebla de Labarcako Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |




## Emakumeen osasunerako tailerrak: «Ciclo vivo»

Gure gorputza ezagutzea ere ahalduntzeko modu bat da. Tailer honek gunea proposatzen du emakumeen osasuna ikuspegi feminista batetik deskubritzeko, ezagutzak partekatuz, sinesmen faltsuak desmuntatuz eta luzaroan ikusezin egon diren jakintzak berreskuratuz.

Mugimendua, elikadura, sexualitatea, plazera, bizi zikloak eta baliabide naturalak uztartzen dira gune praktiko eta parte-hartzaile batean, gure gorputza hobeto ulertzeko, gure autonomia indartzeko eta osasuna modu kontzienteagoan bizitzeko.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Esther López Amelibia**, laguntza teknikaria, gizarte lanean eta genero berdintasunean aditua. Gestalt terapeuta, emakumeentzako guneen sorkuntzan aditua |
| Data eta ordutegia | **Urriak 1 eta azaroak 5, 2026**<br>Osteguna, 18:00 – 20:00 |
| Tokia | Moredako udaletxea |
| Norentzat | Udalerriko emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Moreda Arabako Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |




## Cuídame & Cuídome

### Zaintzarako eta ongizaterako gorputz praktikak, ikuspegi feminista batetik

Tailer honek gunea proposatzen du gelditzeko, gorputzari entzuteko eta autozaintza berreskuratzeko, osasunerako, ahalduntzerako eta indarkeria matxisten prebentziorako tresna gisa. Mugimendu kontzientearen, arnasketaren, gorputz kontzientziaren eta talde dinamiken bidez, esperientziak partekatuko ditugu, elkarren laguntza indartuko dugu eta harreman eta zaintza berdinzaleago eta erantzunkideagoak eraikitzearen garrantziaz hausnartuko dugu.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Leticia Morales**, esperientzia zabala genero ikuspegia duten talde guneak bultzatzen, gorputza birkonexiorako eta autozaintzarako tresna gisa hartuta |
| Data eta ordutegia | **2026ko urriaren 6tik azaroaren 3ra**<br>Hileko lehen asteartea, 2 talde<br>17:00 – 18:30 eta 18:30 – 20:00 |
| Tokia | Erabilera Anitzeko Aretoa, Laguardia |
| Norentzat | Emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Laguardiako Udala<br>Laguardia contigo proiektua<br>Arabako Errioxako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | Laguardiako Udala 945 600 007<br>945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |

Leza



## Mugi Zaitez!

### Gorputza eta ongizatea zaintzeko hitzaldiak

Hitzaldien eta egokitutako proposamen praktiko txikien bidez, gorputzaz, emozioez, arnasketaz, atsedenaz, estresaz eta mugimenduaz hitz egingo dugu, autozaintza eta ahalduntzea bultzatzen dituzten tresnak partekatuz.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Leticia Morales**, esperientzia zabala genero ikuspegia duten talde guneak bultzatzen, gorputza birkonexiorako eta autozaintzarako tresna gisa hartuta |
| Data eta ordutegia | **Irailak 15, 22 eta 29, 2026**<br>Asteartea, 18:00 – 19:30 |
| Tokia | Lezako udaletxea |
| Norentzat | Emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Lezako Udala<br>Albarda Elkartea<br>Arabako Errioxako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |




## Komunikazio inklusiboko prestakuntza - Sakontzea

### Komunikazioa eta gizarte trebetasunak

Izaki sozialak garenez, komunikatzeko beharra dugu. Hala ere, giza eraikuntza oro bezala, komunikazioa gure alborapenek zeharkatzen dute, eta nagusitzen den kontakizuna, sarritan, egia eztabaidaezin bihurtzen da. Saio honetan, komunikatzeko ditugun moduak zalantzan jarriko ditugu, eta estrategiak arakatuko ditugu ahots guztiak aitortuak, entzunak eta kontatuak izan daitezen.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Nagore Pérez**, Suge Aholkularitza feminista |
| Data eta ordutegia | **Irailak 11, 2026**<br>Ostirala, 9:30 – 12:30 |
| Tokia | Bazterra aretoa, Oyón-Oion |
| Norentzat | Udal langileak eta langile teknikoak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Oyón-Oiongo Udala<br>Arabako Errioxako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |




# Eskultura tailerra, artearen historiako emakume artista erreferenteen obraren bidez

Kultura birdefinitzen

Gune sortzailea buztinarekin esperimentatzeko, artearen historiako emakumezko erreferenteak deskubritzeko eta gure sorkuntzei forma emateko. Saioetan zehar Yayoi Kusama, Niki de Saint Phalle edo Louise Bourgeois bezalako artistak ezagutuko ditugu, emakumeek arte munduari egindako ekarpenak balioan jarriz eta haien ikusezintasunaz hausnartuz.

**Plaza mugatuak, gorde zurea!**

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Naia Mira Palacios**, Arte Ederretan graduatua, zeramikan eta arte hezkuntzan prestakuntza espezializatua du. Prestakuntza eta esperientzia handia berdintasun agente gisa eta indarkeria matxisten prebentzioan |
| Data eta ordutegia | **Irailak 15, 16, 22, 23, 29 eta 30, 2026**<br>Asteartea eta asteazkena, 17:30 – 19:30 |
| Tokia | Kultur Etxea, Eltziego |
| Norentzat | Herritarrak, baita neska-mutilak ere |
| Hizkuntza | Elebiduna |
| Antolatzailea - laguntzailea | Eltziegoko Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |



Leza

## Collage tailerra: Mujeres Libres

Sortzeko, partekatzeko eta hausnartzeko gunea, ikuspegi feminista batetik, gure herriak emakumeentzat gune askeago, seguruago eta berdinzaleagoak izan daitezen behar ditugun babes, erreferente eta aldaketei buruz.

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Diana Arboniés Porres.** La Crafetera: artista plastikoa, diseinatzaile grafikoa eta formatzailea. |
| Data eta ordutegia | **Irailak 26, 2026**<br>Larunbata, 11:00 – 13:30 |
| Tokia | Lehen solairua, Lezako udaletxea |
| Norentzat | Herritarrak (adingabeak lagunduta) |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Lezako Udala<br>Albarda Kultur Elkartea<br>Arabako Errioxako Kuadrilla<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |




## Batukada feministako tailerra: «Erresistentzia erritmoak»

### Emakumeen ahalduntzea

Deskubritu perkusioa eta batukada feminista hainbat erritmoren bidez, gune dibertigarri, hurbil, seguru, parte-hartzaile eta energiaz bete batean. Taldean musika ikasteko, zeure burua adierazteko eta gozatzeko aukera. Ez duzu aurretiko esperientziarik behar: probatzeko, gozatzeko eta ondo pasatzeko gogoa baino ez!

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Gema Pérez de Obanos,** Euskal Herriko Batukada Feministen Sareko kidea 2019tik. Gaur egun, Batumore batukada feministako taldea gidatzen du |
| Data eta ordutegia | **Urriak 9 eta 23; azaroak 6 eta 20; abenduak 4 eta 18, 2026**<br>Ostirala, 18:00 – 20:00 |
| Tokia | Bazterra aretoa, Oyón-Oion |
| Norentzat | Emakumeak |
| Hizkuntza | Elebiduna |
| Antolatzailea - laguntzailea | Oyón-Oiongo Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
| Informazioa eta izen-ematea | 945 600 252 620 577 565<br>criojaalavesa.berdintasuna@ayto.araba.eus<br>Hemen ere: laia.araba.eus, hileko buletina, sare sozialak eta kartelak |





## Emakumeentzako brikolaje tailerra

Inoiz pentsatu al duzu erremintak ez zirela zuretzat? Tailer praktiko honetan, oinarrizko brikolaje-erremintak segurtasunez erabiltzen ikasiko dugu, eta autonomia eta konfiantza irabazten lagunduko diguten etxeko konponketa txikiak egiten. Zulagailuekin, lixatzeko makinekin, zerra kalatzaileekin eta elektrizitatearen oinarrizko kontzeptuekin arituko gara, estereotipoak desmuntatuz eta etxeko konponketei beldurra galduz, giro hurbil, dibertigarri eta parte-hartzailean.

**Autonomia geure eskuekin ere eraikitzen delako!**

| | |
|---|---|
| Dinamizatzailea | **Berhezi Berdintasun Aholkularitza** |
| Data eta ordutegia | **Urriak 17 eta 24, 2026**<br>Larunbata, 10:00 – 14:00 |
| Tokia | La Casona, Lapuebla de Labarca |
| Norentzat | Emakumeak |
| Hizkuntza | Gaztelania |
| Antolatzailea - laguntzailea | Lapuebla de Labarcako Udala<br>Arabako Foru Aldundia |
